

6 CANVAS BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezero berriak publizitatearen bidez erakarriko ditugu. Konfiantzazko eta gertuko zerbitzu egoki bat eskeiniz, kalitatezko produktuak eginez eta haien beharrak asetuz mantenduko ditugu gure bezeroak. Gainera, gure produktuen inguruko iritzia ona bada eta bezero zaharrek guretz ondo hitz egiten badute, bezero berriak erakarri ditzakegu. Gure dendaren inguruko publizitatea sare sozialetan eta arropa jasangarriarekin zerikusia duten guneetan jarriko dugu, adibidez aldizkarietan. Bezero arreta-zerbitzua eskeiniko dugu gurekin kontaktatu dezaten eta gustura ez badaude aldaketak proposatu ditzakete, gertuko harremana izaten saiatuko gara. Tripadvisor bezalako aplikazio batean jarri ditzakete haien iritzia eta onak badira jendea erakarri dezakegu.

Bezeroei arreta-zerbitzua eskeiniko diegu, arazoren bat badute gurekin gmail edo sare sozialen bidez kontaktatu daitezke, mugikorrez deitzeko aukera ere izango dute. Ahal dugun guztian lagunduko dugu eta haien iritzia aintzakotzat hartuko ditugu, zerbitzua hobetzeko. Aurrerago zerbitzu automatizatuak ere jarriko ditugu, gmailak automatiko erantzutea esaterako.